

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Eskuordetze berezi iraunkorra: Gatzaga Buradongo eremua Iraia San Ildefonso Ircio andreami

Honen bidez jakinarazten da alkateak uztailaren 4ko 186/2019 Dekretu bidez ondokoa ebatzi duela:

LEHENENGOA: Eskuordetze berezi iraunkor hau onestea: Gatzaga Buradongo eremua Iraia San Ildefonso Ircio andreami.

Aipatutako eskuordetze berezi iraunkorraren barruan, alkateak Gatzaga Buradongo Kontzejuaren lurralde eremurako dituen eskumenak sartzen dira. Hona eskumenok:

– Udal zerbitzu eta lan guztien zuzendaritza, ikuskaritza eta sustapena. Hala ere, ezin izango du hirugarren bati eragiten dion administrazio egintza bidez ebatzi, ezta ondorengorik ere: bere aginteari uko egiteagatik desobedientzia faltak zigortzeko ahalmena, Gatzaga Buradongo Kontzejuaren udal ordenantzak zehaztutako urratzeagatik egindako faltak zigortzeko ahalmena eta hirigintza baimenak ematea, baldin eta ahalmen hori sektore legeek udalbatzari aitortzen badiote.

Eskuordetze berezi hori behar bezala koordinatze aldera, Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkariak egiten ari denaren berri emango die eginkizun orokorren eskuordetzea duten zinegotzietan (Udalbatzako Lehendakariak emanak, 195/2015 Dekretuaren bidez), hala egin behar baldin badu, bere lana aurrera eraman ahal izateko.

Udal eginkizun orokorren eskuordetzea duten zinegotzietan ahalmena dute Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkaria zehatz-mehatz zer lan egiten ari den jakiteko.

Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkaria eta eskuordetze orokorren titularrak bat ez badoz edo haien artean arazo edo gatazkarik sortzen bada, alkateak ebatziko ditu haiek (Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 222. artikulua).

BIGARRENA: Ebazpen honen berri udalbatzari jakinaraziko zaio lehenengo bileran eta ebazpena ALHAOn argitaratuko da, baina ebazpenak sinatu eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau eragindako zinegotzietan jakinaraztea, ahalmenen eskuordetzea ordezkariak onartu behar duela adieraziz. Dena dela, eskuordetzea isilbidez onartutzat emango da erabakia jakinarazten denetik kontatzen hasita hiru egunetan ordezkariak ez badiu alkateari berriaz adierazten ez duela eskuordetzea onartzen.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka ondoko errekurtsioak jar daitezke:

a) Aukerako berraztertze errekurtsioa alkateari. Horretarako, hilabete dago, honako ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52. artikulua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoekin lotuta).

b) Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epai-tegiaren aurrean. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa jartzen bada, errekurtsio

horren ebazpena idatzia bada, errekurtsua jartzeko bi hilabeteko epea ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasiko da; idatzizko ebazpena ematen ez bada, ordea, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, aukerako berraztertze errekurtsua ustez ezetsi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenaren, 8.1, 46.1 eta 46.4. artikulua).

Bastida, 2019ko uztailaren 4a

Alkatea

LAURA PEREZ BORINAGA